



**GIPUZKOAKO TXAPELKETA
LURRALDEKO 2. MAILA, SENIORRAK**

LEHIAKETA-ARAUDIA

I.- LEHIAKETA-EGUNAK

Lehiaketa hau denboraldian ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegiari jarraituz.

II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK

2024-2025 denboraldiko lehiaketan parte hartuko duten taldeen zerrenda klubei **jakinaraziko zaie kategoria horretan izena emateko ezarritako epea amaitutakoan.**

III.- LEHIAKETA-FORMULA

Lehiaketa hau bi fasetan jokatuko da.

Hamar taldek edo gehiagok izena emanaz gero:

Lehen fasea:

Bi multzotan jokatuko da, eta multzo bakoitzean bi partidako liga-sistema egingo da. A eta B multzoak 2023-2024 denboraldiko sailkapen-irizpideen arabera zozkatuko dira, eta klub bereko bi taldek multzo berean egotea saihestuko da.

Bigarren fasea:

IGOERAKO SAILKAPEN-MULTZOA: multzo bakoitzean lehen sailkatutako taldeek (lehenengo sailkatutik hasita multzoaren (A eta B) erdira artekoek), bi partidako liga-sistemaren bidez jokatuko dute, soilik beste multzokoen aurka jokatuz eta sailkatutako taldeen artean 1. faseko puntuak eramanez.

Fase honetako txapelduna zuzenean igoko da Lurrealdeko 1. mailara.

2.etik 5.era sailkatutako taldeek play-offa jokatuko dute igoerako bigarren postua lortzeko:

1. jardunaldia:

1 finalerdia: 2. sailkatua vs 5. sailkatua.

2 finalerdia: 3. sailkatua vs 4. sailkatua.

2. jardunaldia:

Finala: 1. finalerdiko irabazlea vs 2. finalerdiko irabazlea.

Final honetako txapelduna zuzenean igoko da Lurrealdeko 1. mailara.

"FEDERAZIO TORNEOA" MULTZOA: multzo bakoitzean (A eta B) erditik amaierara arte sailkatutakoek jokatuko dute. Beste multzo bat osatuko dute, bi partidako liga-sistemaren bidez

jokatuko dute, soilik beste multzokoen aurka jokatuko dira eta sailkatutako taldeen artean 1. faseko puntuak eramango dituzte. Multzo honetako **lehen sailkatua Federazio Torneoko txapelduna izango da.**

Hamar talde baino gutxiagok izena emanaz gero:

Lehen fasea:

Liga partida bikoitzera, multzo bakarrean.
Fase honetako txapelduna zuzenean igoko da Lurraldeko 1. mailara.

Bigarren fasea:

2.etik 5.era sailkatutako taldeek play-offa jokatuko dute igoerako bigarren postua lortzeko:

1. jardunaldia:

1. finalerdia: lehen faseko 2. sailkatua vs lehen faseko 5. sailkatua.
2. finalerdia: lehen faseko 3. sailkatua vs lehen faseko 4. sailkatua.

2. jardunaldia:

Finala: 1. finalerdiko irabazlea vs 2. finalerdiko irabazlea
Fase honetako txapelduna Lurraldeko 1. mailara igoko da.

IV.- NORGEHIAGOKEN EGUNAK ETA ORDUTEGIAK

Txapelketako partida guztiak Egutegi Ofizialean aurreikusitako egunetan jokatuko dira, ezinbesteko arrazoiengatik edo Diziplina Batzordeak hala erabakita atzeratzen direnak izan ezik.

Partidak programatuta egongo dira, eta ordutegia eta data aldatzeko aukera izango dute, Lehiaketa Araudi Orokorrak **3.5 atalean** adierazitakoaren arabera. Diziplina Batzordeak arau hori betetzen dela eta, bete ezean, **3.10 atalean** aurreikusitako zehapenak aplikatzearen direla bermatuko du, eta horren erantzule izango da.

V.- PARTE HARTUKO DUTEN JOKALARIAK

Lurralde mailako gizonezkoen senior lehiaketetan, lizentzia behar bezala izapidetuta daukaten eta senior adinean dauden gizonezko jokalariek parte hartu ahal izango dute (**2006. urtera arte jaiotakoak**), bai eta klub eta/edo filial bereko jokalaria gazteek ere, baldin eta Lurralde Federazio honek izapidetutako lizentzia badute, horretarako ezarritako araudiarekin bat etorritik.

Gipuzkoako Txapelketa hasterakoan, taldeek gutxienez **hamabi (12) eta gehienez hogeita hiru (23) jokalariz osatutako kupo nagusia eduki beharko dute.**

Senior gizonezkoen kategoria honetan, gehienez hamasei (16) jokalaria inskribatu ahal izango dira aktan, eta nahitaezkoa izango da hamar (10) jokalariren inskripzioa eta presentzia fisikoa. Gutxiago inskribatuz gero, GEFren Lehiaketa Araudian adierazitako zehapena ezarriko da.

LIZENTZIEN KUPO GEHIGARRIA:

- Plantilla osa dezaketen 23 jokalarietatik **zortzi postu talde bereko jokalaria jubenilentzat (2007-2008an jaiotakoak) gorde ahal izango dira.**

Horiek guztiak **aldez aurretik baimenduta** egon beharko dira, Lehiaketa Araudi Orokorraren 2.2 atalean adierazitakoaren arabera; berariazko baimenik gabe, jokalaria-zerrenda BIDEGABEA izango da.

- Beren klubeko eta/edo filialeko senior taldearekin parte hartzen duten jokalaria jubenilek ez dute jubenil izaera galduko, eta **bi partidatarako zerrendan sartu ahalko dira jardunaldi bakoitzean, jokatzeko eguna edozein dela ere.**
- Gipuzkoako Senior Txapelketetako taldeen osaketa, bai kupo nagusikoa bai gehigarrikoa, lehiaketa amaitu baino **hiru aste lehenago** itxiko da.

Torneoak eta kopak:

Talde guztiek, torneo eta kopetan, baimendutako zortzi (8) jokalaria jubenil eduki ahal izango dituzte jokalaria-zerrendan. Ez dira izendunak izango, eta bi partidatarako jokalaria-zerrendan sartu ahalko dira kirol jardunaldi bakoitzean, jokatzeko eguna edozein dela ere.

BALDINTZA OROKORRAK:

- Kupo gehigarriko jokalaria gehienez ere bi partidatarako jokalaria-zerrendan sartu ahalko dira kirol jardunaldi bakoitzean, jokatzeko eguna edozein dela ere.
- Talde batek norgehiagokaren mailatik behera jokatu ohi duten jokalaria aurkezten baditu, epaileek jokalaria horien izen-abizenak jaso beharko dituzte partida-aktan. **Jubenilen kasuan, federazio honetako Diziiplina Batzordearen akta-zenbakia jasoko da, jokalaria-zerrenda hori baimentzen duena.**
- Ondorioz, klub batek Lurreko 2. mailan dagoen talde bat badauka, ezin izango du mailaz igo, non eta Lurreko 1. mailako bere taldea ez den Euskadiko Gizonezkoen Senior Txapelketara igotzen edo Lurreko 1. mailako taldea kategoriaz jaisten.

VII.- ENTRENATZAILEAK ETA ORDEZKARIAK

Talde guztiak nahitaez inskribatu behar dira aktan, eta partida guztietan entrenatzaile edo entrenatzaile-laguntzailea eduki beharko dute (ONARTUTAKO TITULUDUNA).

Talde batek Foru Aldundiak izapidetutako lizentzia erabiltzen badu, eskatutako titulazioa duela bermatu beharko du; hori egin ezean, jokalari-zerrenda bidegabea izango da.

Horrez gain, antolatu behar dituen norgehiagoketan, ZELAIKO ORDEZKARI baten presentzia fisikoa eduki beharko du, eta berau aktan inskribatu.

Betebehar horiek bete ezean, GEFko Partida eta Lehiaketa Araudiak adierazitako zehapenak ezarriko dira.

VII.- XEDAPEN GEHIGARRIAK

Gipuzkoako Gizonezkoen Lurraldeko Lehen mailako Ligako arau espezifiko hauek **OHIKO BATZARRAK** onartutako GIPUZKOAKO FEDERAZIOAREN TXAPELKETA ARAUDI OROKORREAN adierazitakoarekin osatuko dira.